



Mindegi iraunkorra

Hizkuntz ariketen hausnarrean

Joanba Bergara

Eguneroko protagonista; ikasle zein irakaslearen bidelaguna; lan-gaia; lantresna; gorrotatua batzuetan; maitatua bestetan; hizkuntz ariketa. Mindegi honek protagonista honen aurrez aurre jarri eta beronen nortasuna hausnartu eta birraurkitzeko egokiera eman nahi du. Euskararen irakaskuntzan ere, beste arloetan bezala, ohi-tura itsuen gurpilean trabatuta geratzeko arriskua bait dago, euskararen ikasprozesuaren kaltetan.

Mindegi honek hizkuntz ariketak aztertu eta sortzeko bi lanabes aurkezten ditu, malgutasunez erabiliz gero zeregin horietarako lagungarri gertatuko zaizkizulakoan. Lanabesak, ez inondik inora automatikoki erantzun "zuzena" ematera gidatuko gaituzten algoritmoak.

Mindegia bideratzeko iradokizunak

Mindegiak *Hizkuntz ariketak aztertzeko markoa* (Zutabe 29) izeneko nere artikuluan du oin, ondoren egin beharreko guztiak han emaniko azalpenen harian burutuko direlarik. Beraz, mindegiari atarramendu onik atararako bazaio, behar-beharrezkoa da han esandakoa gogoan edukitzea.

- 1 Lankideekin bildu eta *Kodea* (.1) deritzan atala ondo aztertu. Arestian esan bezala, azterketa hori behar bezala burutzeko, ezinbestekoa duzu aipatu nere artikulua hori eskura edukitzea.
- 2 Osatu, gainontzeko lankideekin batera, aztertu nahi dituzuen ariketen zerrenda. Zer-nolako ariketak hautatu? Ariketa *ezagunak*, euskara-ikasleei noizbait eginarazi dizkiezun horietakoak; eta elkarren antzeko ez direnak. Gero aztertu .2 fitxa. Argitasun beharrean aurkitzera, jo .1 fitxara.
- 3 .2 fitxa lagun, aztertu¹ talde osoan zerrendako bizpahiru ariketa. Gardenki-proiektorea izanez gero, egin .2 fitxaren gardenkia eta pantailan proiektatu. Lagun batek, gardenkia behar bezala betez, azterketaren

emaitzak isla ditzala saioa aurrera joan ahalean.

- 4 Zaila gertatu al zaizue ataza? Desadostasunik egon al da? Suertatu al da zenbaitetan erantzun bat² baino gehiago ere eman zitekeela? Zer dela eta? Islatu al duzue hori taulan? Nola?
- 5 Azterketaren dinamika ezagutu ondoren, talde txikitan egingo duzue lan orain. Talde ezberdinek ariketa bat aztertuko dute, talde guztiek ariketa bera. Lehen egin bezala, emaitzak .2 fitxan jaso.
- 6 Taldeen emaitzak alderatu³. Zertan zatozte bat eta zertan ez? Zergatik? Beste taldeen azalpenak entzunda, prest al zaudete zuen taldean erabakitakoa aldatzeko?
- 7 Eman, talde txikitan lan eginez, ondorengo hitzen definizioa: *hemograma*, *kardiograma*, *entzefalograma* eta *ariketagrama*. Zer dute definizio horiek amankomunean? Amaitu ondoren, alderatu zuen definizioak beste taldeenekin.
- 8 Aztertu ondo .3 fitxa. Zerbait argitu behar izanez gero, .1 fitxara jo.
- 9 *Ariketagramak egin*⁴

Ondorengo atazak egiteko, aintzat hartu 2 unean zerrendaturiko ariketak. Eta, nahi izanez gero, .2 fitxan ikertu dituzuen ariketekin has zaitezke ataza-sorta berri hau egiten.

 - a. .3 fitxa lagun duzuela, bizpahiru ariketa aztertu talde osoan eta ariketa bakoitzaren ariketagrama osatu. Lan hori 3 unean azaldu bezala egin daiteke.
 - b. Zaila gertatu al zaizue egitekoa? Suertatu al da zenbaitetan erantzun bat⁵ baino gehiago ere eman zitekeela? Zer dela eta? Islatu al duzue hori ariketagraman? Nola?
 - c. Ariketagramen esparrura hurbildu ondoren, talde txikitan egingo duzue lan orain. Talde ezberdinek ariketa bat aztertuko dute, talde guztiek ariketa bera. Lehen egin bezala, emaitzak .3 fitxan jaso.
 - d. Taldeen emaitzak alderatu⁶. Bat al zatozte ala ez? Zergatik? Beste taldeen azalpenak entzun ondoren, prest al zaudete zuen ariketagramak aldatzeko?
 - e. Orain talde bakoitzari ariketa ezberdin bana emango zaio, eta partaide bakoitzak nork bere aldetik taldeari egokituriko ariketaren ariketagrama egingo du.
 - f. Emaitzen berri elkarri eman. Hiru modutara egin dezakezue hori:
 - Alderatu zeure ariketagrama zure taldekideek burutu dutenekin.
 - Edota talde osoan emaitzen berri eman elkarri.
 - Edota lehenengo taldeak birrantolatuz, talde berrietan lehenengo taldeetatik gutxienez ordezkari batek egon behar duelarik. Hori egin ostean, aurreko unean nork bere aldetik osaturiko ariketagramaren berri emango diozue elkarri.

- g. Lankide batekin bildu. Ariketa bana aukeratu eta nork bere gisa ariketa aztertu eta dagokion ariketagrama egin behar duzue. Ariketa hautatze-rakoan, zure lagunak aukeratua ez beste edozein hartu, ezberdinak be-har bait dute izan ataza behar bezala burutu ahal izateko. Lana amaitu-takoan, ariketak elkartrukatu eta lagunak emaniko ariketaren ariketa-grama osatu. Bukatutakoan, bi ariketagrama izango dituzue ariketa ba-koitzeko. Alderatu ariketagramak.
- h. Lankide batekin bildu. Nork bere gisa ariketa bana aukeratu, berau az-tertu eta ustez dagokion ariketagrama egin. Lehen bezala, kontuan izan ezin dela ariketa bera aukeratu. Amaitu ostean, ariketagramak trukatu eta besteak eman dion ariketagrama azaldu beharko du bakoit-zak. Azalpenak ematen dituen laguna zirikatatu. Bukatu ostean, eraku-tsi elkarri ariketak konparazioa egiteko.
- i. *Elkarrekin lotu*

Bakarka zein taldean bost ariketaren ariketagrama egin. Lagun/talde bakoitzak aztertuko dituen ariketak gainontzerako lagunena/taldeen-ak ez bezalakoak izango dira. Amaitu ostean, ariketagramak zenbatu, ariketei izenburua ipini izenbururik ez badute eta gero mahai gainean utzi nahasian. (Ez azaldu inon ariketagraman zein ariketari dagokion.) Orain zuk/zuek ez bestek prestaturiko ariketagramak eta ariketak el-karlotu, horretarako gainontzeko lagunak/taldeak egon diren lekue-tara joaz.

- j. Lagun/talde batek prestaturiko ariketagrama aztertu ondoren, aukera-tu/sortu ezaugarri horietara egokitzen den ariketa. Gero alderatu jato-rrizko ariketa eta ariketagramaren arabera sorturikoa. Sortze-lana ba-karrean edo taldean egin, nahi bezala. Ariketagrama jakin bat zenbai-tentzako abiapuntu izan bada, interesgarria litzateke partaide horien emaitzak alderatzea. Esan, bestalde, abiapuntua ariketa hipotetiko ba-ten ariketagrama ere izan litekeela.
- k. Ariketagrama jakin baten ezaugarri zenbait aldatu eta sortu gero arike-tagrama berriari egokitzen zaion ariketa.

l. *Ariketagramez baliatuz, ariketak alderatu*

Fotokopiatu .3 fitxa, aztertu zenbait ariketa eta fotokopia berean bakoit-zaren ariketagrama egin kolore ezberdinez.

10 *Hausnarketa*

- a. Honez gero aski ezagunak izango dituzu .2 eta .3 lanabesak. Zeintzuk dira bien arteko aldeak? (Besteak beste, honako alderdiak aintzat hartu: azterketarako ardatzak, neurpideak eta fitxa bakoitzean egin be-harreko funtsezko ataza.) Bietatik zein nahiago? Zergatik?
- b. Zertarako dira, zure ustez, lanabes horiek baliagarri?
- c. Alde onak ezezik, akatsak edo mugak ere hartu behar dira kontuan. Ba-dago zure ustez horrelakorik?
- d. Zer irizten diozu ariketen azterketarako eskaini zaizun irizpide-bildu-mari? Aldaketaren bat egingo al zenuke?

- e. Eta zer deritzozu neurtzeko sistemari?⁷ (.2 eta .3 aurrean eduki.)
- f. Ba ote dago arriskurik lantresna bi horien erabilpenean? Izatekotan, zein (tzuk)?
- g. Zaila al da, zure ustez, lantresna hauetaz behar bezala baliatzea? Zer dela eta?

* * *

Egiteko asko planteiatu du mindegiak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, egiteko zenbaiten artean bederen nolabaiteko garapen logikoa izan arren, den-denak burutu behar direnik; aukera-sorta zabala eskaini zaizu, gero zuk nahi adina egin ditzazun. Ezta guztiak egin nahi izanda ere, hasi eta amaitu arte horretan aritu behar denik; alderantziz, etekin handiagoa aterako zaio ziurasko, aldia behin eginez gero. Arituaren poderioz, handia-gotzen joango da hizkuntz ariketak aztertzeke trebezia.

.1:
Azterketarako
irizpide-bilduma

Kodea

1 Prestaketa

– Zaila

+ Erraza

/ Erdibideko zailtasuna

2 Antolaketa

a. Taldekatzeke erak edo harreman-motak

1 Talde handia

2 Talde ertaina

3 Talde txikia

4 Binaka

5 Bakarka

6 Konbinazio ezberdinak

Oharrak

– Zenbaitetan, ikasleek galdetzen zaienean soilik hartzen dute parte, irakaslearen kontrolpean eta beste ikasleen aurrean; bestetan, isil-isilean egoten dira, begiratu besterik egin gabe. Hori gertatzera, zenbakiari izartxo bat erantsi.

– Konbinazioak izatera, ondo zehaztu interakzioen nolakoa eta berauen segida. Esaterako, 1*, 4*, 4.

b. Baliabideak

☯ Ikusizkoak

∩ Entzutezkoak

⊖ Ikusentzunezkoak

c. Outputaren kontrola eta zuzenketa

Ir(*) Irakaslea

Ik Ikaslea

A(*) Ariketa

Oharra

– **Irk***

Irakasleak kontrolatzen du ikasleen outputa, eta irakasleak berak hartzen du zuzenketak egiteko erabakia, errorea gertatzean irakaslearen aukerak hiru direlarik:

- berak zuzentzekoa,
- autozuzenketa eskatzekoa,
- ikasle batek haren ikaskidearen hutsa zuzen dezan eskatzekoa.

– **Irk**

Irakaslearen esku dago outputaren kontrola zein zuzenketa, baina goian ez bezala ez da zorrotz zuzentzen.

– **Ik**

Ikasleen ardura da arazo hori. Askotan ez dute ezer zuzenduko, nahiz eta hutsegiteak gertatu. Zenbaitetan, elkarren arteko zuzenketa egingo dute; eta autozuzenketa bestetan. Irakasleak ere zuzen dezake, hutsak gertatu ahalean; baina behar-beharrezkoa denean bakarrik, taldez talde ibiliz; edota gerorako utzi, horretarako erroreak gertatu ahala oharrak jasotzea oso lagungarri izanik.

– **A(*)**

Ariketak berak ematen du zuzenketak egiteko bide. Zenbaitetan, ariketaren joanean esaten zaio ikasleari ondo egin duen ala ez (laborategiko ariketa batzuetan, adibidez); bestetan, aldiz, ariketa bukatzean (erantzun idatziak liburuaren bukaeran jarriz edo ikasleei egiaztatze-fitxa emanaz).

Kontrola eta zuzenketa oso zorrotza denean, **Ari** izartxo bat erantsiko genioke.

3 *Interesa*

- Txikia/ hutsala
- + Handia
- / Erdibideko interesa

4 *Ekonomia*

- Gutxikoa
- + Handikoa
- / Erdibidekoa

5 *Ariketaren izaera*

1 *Inputa*

- L** Linguistikoa
- L** Ez-linguistikoa
- ⊖ Linguistikoa eta ez-linguistikoa
- Inputik ez

Oharra

Nahi izanez gero, aukeratutako ikurrari ondorengo letra hauetatik bat erantsi: **A/ B/ C.** (**A:** input sintagmatikoa; **B:** input paradigmaticoa; **C:** erdibideko inputa.)

2 Ulermena/ adierazpena

- U** Ahozko ulermena
- U*** Idatzizko ulermena
- A** Ahozko adierazpena
- A*** Idatzizko adierazpena

3 Mikroa/ makroa

- Mikroa
- Makroa

4 Hizkuntzaren izariak

- F** Forma
- E** Esanahia
- P** Pragmatika

5 Benetakotasuna

- +n** Badu testuingururik, eta egoera horretan gertatzen dena "naturala" da.
- +a** Badu testuingururik, baina egoera horretan gertatzen dena "artifiziala" da.
- Ez du testuingururik.

6 Komunikatiboa/ ez-komunikatiboa

- +** Komunikatiboa
- Ez-komunikatiboa

Oharra

Gogoan hartu ariketa komunikatiboak honako printzipio hauetara egokitu ohi direla, beti guztietara ez bada ere:

- 1** Informazioaren transposizioa
- 2** Informazio-jauzia edo informazio-hutsartea
- 3** Trukaketa
- 4** Eginkizuna
- 5** Interdependentzia
- 6** *Feedbacka*

Ariketa jakin bat komunikatibotzat jotzen bada, nahi izanez gero betetzen diren printzipioak nabarmendu, printzipio horiei dagokien zenbakia aipatuz.

7 Ariketaren kontrola

- +** Handia
- Txikia edo hutsala
- /** Erdibidekoa

8 Pertsonalizazioa

- +** Handia
- Txikia/ hutsala
- /** Erdibidekoa

6 Zertarako

a. *Aurkezpena/ praktika kontrolatua/ praktika askea/ trebetasunak*

A Aurkezpena egiteko

K Praktika kontrolatua egiteko

As Praktika askea egiteko

T Trebetasunak lantzeko

b. *Zuzentasuna/ etorria*

Z Zuzentasuna

E Etorria

Zuzentasuna eta etorria

7 Estrategia

U Ulermena

K Komunikazioa

B Berreraiketa

Eklektikoa

8 Feedbacka

A1 Zehaztasun-feedbacka (*Ñabardurak ondo ulertuak izan diren jakinerazi nahi denekoa.*)

A2 Zehaztasun-feedbacka (*Ñabardurak zuzen erabili edo azalduak izan diren jakinerazi nahi denekoa.*)

B1 Ulermen-feedbacka (*Mezua ulertua izan den jakinerazi nahi denekoa.*)

B2 Ulermen-feedbacka (*Mezua igorria izan den ala ez jakinerazi nahi denekoa.*)

		1		2		3		4		5		6		7		8			
		PRESTA- KETA		ANTOLAKETA		INTERE- SA		EKONO- MIA		ARIKETAREN IZAERA		ZERTIARAKO		ESTRA- TEGIA		FEED- BACKA			
		a. Taldeuzako erak	b. Bazarreko	c. Dintxunen konbino erakuzumena	1. Inbilit	2. Ulkenen/ adierazpenak	3. Aukerak m.k/eg.?	4. Muntzaileren izirik	5. Bontze- jantzu	6. Komunikabiltasun/ etxeko komunikabiltasun	7. Ariketaren konbino	8. Partesun- lizeirik	9. Auzkeraren/ a. Konbinoak/ b. Zuzenazko erakuzumena	A K A S T	Z E O O	U K B O O	A 1 A 2	B 1 B 2	
		1 2 3 4 5 6	7 8 9 0	1 2 3 4 5 6	- + /	- + /	L - L - O -	U U - A - A -	<input type="checkbox"/>	F E P	+ + + + +	- + -	+ - /	+ - /	A K A S T	Z E O O	U K B O O	A 1 A 2	B 1 B 2
1																			
2																			
3																			
4																			
5																			
6																			
7																			
8																			
9																			
10																			
11																			
12																			
13																			
14																			
15																			


... or.

A. Azterketarako ardatzak →

B. Ariketak (Izenburua, Iturria,

Orriak)

3: Ariketagrama



Oharrak

- 1 Ez dago zertan *azterketarako ardatz* "guztiak" kontuan hartu behar. *Banaka batzuk bakarrik aukeratu*, egitekoa horrela burutu nahi izatera.
- 2 Izaera eta barne-egitura askotarikoak ditugu hizkuntz ariketak. Bergarak (1989), esaterako, orain denbora asko ez dela, honako ariketa-tipologia egin zuen:
Ariketa analitikoak
 - Ohizko ariketa gramatikalak eta drill mekanikoak
 - Alderdi semantikoa lantzen duten ariketak eta drill esanahidunak*Ariketa analitiko komunikatiboak eta drill komunikatiboak*
Ariketa komunikatibo integratuak
Ariketa globalak
 - Egitura konplexuagoko ariketa komunikatiboak
 - Ariketa komunikatibo estentsibo edo ia estentsiboak.Azterketarako ardatzen aldetik ikusita, ariketa batzuk argi eta garbi kategoria jakin batean sailkatu beharko ditugu eta ez bestean, kategoria horretako ezaugarria bete-betean dutelako. Bestetan, aldiz, kategoria bat baino gehiagotan. Esaterako, ariketa baten une bat, ulermena lantzea helburu duena, sintagmatikotzat har genezake; eta ariketa berberaren beste une bat, alderdiren bat ekoizpen-mailan landu nahi duena, paradigmatikotzat. Azken kasu honetan komeni litzaiteke, uneak batera hartuta era globalean aztertu ordez, berauen garapen diakronikoaren aldetik egitea. Nahikoa izango da horretarako .2 fitxako zenbait zutabetan behar beste goitik beherako lauki hartzea. Une bakoitzeko kolore bat erabil daiteke.
- 3 Talde bakoitzari .2 fitxaren gardenkia banatuz gero, azterketaren emaitzak bertan jasotzeko, lanak erraz eta era egokian aldera daitezke. Osaturiko gardenkiak bata bestearen gainean jarri besterik ez guke egin behar.
- 4 Ariketagrama bat baino gehiago egin dezakezu .3 fitxan. Azterketa horrela egin nahi izatera, kolore ezberdinak erabili, kolore bat ariketa bakoitzeko.
5.6 zutabearen aldamenen dauden zenbakiak ariketa komunikatiboaren printzipioen ordez jarri ditut. Zein den zein jakiteko, ikus .1 fitxa.

Nahi izanez gero, markatu zenbakiak (edo boro-bilean sartu) printzipio horiek ariketan agertzen diren heinean. Gauza bera egin daiteke 5.5 eta 5.1 zutabeen eskuinean ere. Azkenik, 5.2 eta 5.1 zutabeen eskuinean dauden taulak eta 2.a zutabearen ezkerrean dagoena 2. oharrean aipaturiko azterketa diakronikoa zeratzeko dira.

- 5 Ikus 2. oharra. Baita ere azterketa diakronikoari buruz esandakoa.
- 6 Goiko 3. oharrean azaldutakoaren harian egin daiteke, oraingoan .3 fitxaren gardenkiaz baliatuz.
- 7 Hizkuntz ariketen muinera *hurbiltzeko* lanabes batekin aprobak egiteko aukera izan duzu mindingean. Lantresna duzu, ariketen *izaera hobeto ulertzeko* lagungarri gerta dakizukeena, eta ez algoritmo edo formula matematikoa. Glotodidaktika-alorreko hainbat kontutan, zientzia zehatzean ez bezala, hori bait da lor dezakegun gauza bakarra. Zeinek ez ote du izan maiz askotan aztergai zenbaitek eskuetatik ihes egiten digutelako inpresioa? Honek ez du inor harritu behar. Errealitatearen mugak ondo zeratu eta neurpide egokiak erabiltzea ez bait da lan makala. Hainbat aldiz, agian, ez zaigu batere zaila gertatuko alderdi jakin bat neurtzea, argi eta garbi erantzun *numeriko* edo *bai* ala *ez* modukoak ematerik dagoenean, kasu. Baina ondo baino hobeto dakigun bezala, gutxitan gertatzen da hori. Errealitateari behar bezala helduko badiogu, sinplekeriatan erori gabe, bi muturren arteko mailaketa egin beharko dugu askotan eta ezaugarri jakin baten pisu erlatiboa definitzen saiatu. Guk, esaterako, honako eskala hauek erabili ditugu:
 - hiru mailatakoa (*asko - erdibidekoa - gutxi*, kasu);
 - hamar mailatakoa (0: ezer ez; 1-2: oso gutxi; 3-4: gutxi; 5-6: nahikoa; 7-8: ongi - dexente; 9: oso ongi - ugari; 10: bikain -oso ugari).

Eta bestetan, bi muturren arteko mailaketa ere desegokia izango da. Horrelakoetan parametro numerikoa ahaztu eta iruzkin deskriptibo edo ebaluatzailearen ildotik abiatu beharko guke.

Aipua

Bergara, J. 1989. "Klaseko hiru etapa nagusiak: aurkezpena, praktika kontrolatua eta praktika askea" in *Zutabe* 19: 11-120.